DONOSTIAKO EGIA ETA INTXAURRONDO KULTUR-ETXEETAN "MUSIKAGELA" KUDEATU ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAREN (MUSIKA ANPLIFIKATUA EGITEN DUTEN BAKARLARIENTZAKO ETA TOKIKO TALDEENTZAKO ENTSEGU-ARETO ETA LAGUNTZA ESKAINTZA) LIZITAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. **«MUSIKAGELA»**

1. **KONTRATUAREN XEDEA ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA**

2. **ARETOAK ETA ZERBITZUAK: PREZIOEN ETA DIRU-SARREREN KUDEAKETA**

3. **ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIA**

4. **KOMUNIKAZIO ETA IRUDIA. ZERBITZUAREN SUSTAPENA**

5. **KONTRATUA EGIKARITZEAN ATXIKI BEHARREKO GIZA BALIABIDEAK**

6. **TXOSTENAK ETA DATU BASEAK**

I. Eranskina. Entsegu-aretoen barne-araudia.

IFK-CIF Q2000541I

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

DONOSTIAKO EGIA ETA INTXAURRONDO KULTUR-ETXEETAN "MUSIKAGELA" KUDEATU ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAREN (MUSIKA ANPLIFIKATUA EGITEN DUTEN BAKARLARIENTZAKO ETA TOKIKO TALDEENTZAKO ENTSEGU-ARETO ETA LAGUNTZA ESKAINTZA) LIZITAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA


1. «MUSIKAGELA»

«Musikagela» musika anplifikatua egiten duten tokiko musika taldeentzako zerbitzu bat da.

Hiriko **musika jarduera sustatu eta dinamizatu** nahi du, **entseguak, kontzertuak, ikastaroak, aholkularitza eta xede horretan lagunduko duten beste ekimen batzuk egiteko aretoen** bidez. Azpiegiturak **Egiako eta Intxaurrondoko** kultur etxeetan daude.

https://www.donostiakultura.eus/eu/musikagela





IFK-CIF Q2000541I

2. KONTRATUAREN XEDEA ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

A. XEDEA

Kontratazio honen xedea da Egia eta Intxaurrondoko Kultur Etxeetan "Musikagela" kudeatu eta dinamizatzeko zerbitzua ematea (entsegu-aretoak eta laguntza eskaintzea musika anplifikatua egiten duten bakarlariei eta tokiko taldeei) DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOARENTZAT (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA), Preskripzio Teknikoen Agiri honekin, Administrazio Klausula Partikularren Agiriarekin eta haren Karatularekin bat etorriz.

«Musikagela» funtsean lau ataletan banatzen da:

A. **Entsegu aretoen aldi baterako erabilera lagatzeko zerbitzua:**
Zerbitzua Egiako kultur etxeko 8 aretotan eta Intxaurrondoko kultur etxeko 5 aretotan emango da.

B. «Musikagela» zerbitzuaren dinamizazioa, jardueren bidez

C. Grabatzeko eta zuzenean jotzeko ekipamendu eramangarrien erabilera lagatzeko zerbitzua (Egiako kultur etxean soilik)

D. **Biltegia:**
Zerbitzuaren erabiltzaileek beren musika-tresnak bertan gordetzeko toki bat.

DONOSTIA KULTURA erakundeak enpresa kontratatzailearen eskura jarriko ditu «Musikagela» zerbitzuaren instalazioak (Donostiako Egia eta Intxaurrondo auzoetako kultur etxeetakoak), kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 130. artikuluan ezarritako betebeharra betez, lizitatzaileei informazioa ematen zaie subrogazioak eragin diezaiekeen langileen kontratuen baldintzei buruz, baldin eta lege-arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio-akordio batek adjudikaziodunari ezartzen badio enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra lan-harreman jakin batzuetan.

Informazio hori Administrazio-klausula Partikularren agiriko **IX. eranskinean** dago, eta gaur egun kontratuaren xede diren zerbitzuak ematen dituen kontratistak eman dio kontratazio-organoari.

Hau da kontratuaren CPV kodea:

- 92000000 - Aisialdirako, kulturarako eta kirolerako zerbitzuak.

IFK-CIF Q2000541I

B. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Kontratua gauzatzeko, enpresa kontratistak bulegorako eta barneko lanerako gune bat izango du, hala Egiako nola Intxaurrondoko kultur etxeetan.

«Musikagela» zerbitzuaren lau eremuen funtzionamendu espezifikoari dagokionez:

A) Entsegu aretoen aldi baterako erabilera lagatzeko zerbitzua:

«Musikagela» zerbitzua Egiako kultur etxeko 8 aretotan eta Intxaurrondoko kultur etxeko 5 aretotan emango da.

Areto horietara musika anplifikatua egiten duten bakarlari eta taldeak sartu ahalko dira, aurrez erreserba egin badute eta erabilera lagatzeko kostua ordaindu badute, DONOSTIA KULTURA erakundeak finkatutako prezioen arabera, erakundearen titulartasuneko kontu korronte batean.

Era berean, 3 areto erreserbatuko dira egoiliartza araubidean dauden bakarlari edo taldeentzat, eta gainerakoak txandakako araubidean dauden taldeentzat izango dira, barne erregelamendua errespetatzeko baldintzarekin (ikus **I. eranskina)**. Erresidentzia erregimenean urtean sei bat talde edo bakarlari pasatzen dira eta errotazio erregimenean urtero 40 bat talde edo bakarlari pasatzen dira.

Enpresa kontratistak **aretoak erabiltzeko egutegiak** prestatuko ditu, jasotako eskariak kontuan hartuta.

DONOSTIA KULTURAk musika proiektu egoiliarrak onartu beharko ditu. Egoiliartza sei hilabetekoa izango da eta zerbitzua martxan jartzean hasiko da; sei hilean behin, enpresa kontratistak eta DONOSTIA KULTURAk berrikusketa bat egingo dute talde eta bakarlariekin, zerbitzuaren emaitza ebaluatzeko eta egoiliartzarekin jarraitzea egokia den ala ez ikusteko.

«Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileek instalazioak erabiltzeko dagokion kontratua sinatu beharko dute DONOSTIA KULTURA erakundearekin eta, horren bidez, DONOSTIA KULTURA erakundea erantzukizun orotatik salbuetsita utziko dute, DONOSTIA KULTURA erakundearen instalazioetan dauden musika tresnek izan ditzaketen kalte, galera eta bestelako gorabeherei dagokienez.

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak oinarrizko mantentze-lanak egin beharko ditu (gelak txukun edukitzea, argiak piztu eta itzaltzea, taldeei oinarrizko laguntza ematea, etab.) eta oinarrizko jarraibideak eman beharko dizkie talde eta bakarlariei, beren eskura dituzten ekipamenduak eta instalazioak egokiro erabiltzen ikas dezaten.

DONOSTIA KULTURAk ez du bere gain hartuko bere instalazioetan dauden materialak izan ditzakeen kalteen (lapurretak, ebasketak, hausturak, etab.) ondoriozko inolako erantzukizunik.

IFK-CIF Q2000541I

B) «Musikagela» zerbitzuaren dinamizazioa, jardueren bidez.

DONOSTIA KULTURA erakundeak zehaztuko du kontratuaren lehenengo urteko «Musikagela» zerbitzua dinamizatzeko jarduketa- eta prestakuntza-plana; horretarako, bere eskaintzan esleipendun irtengo den enpresak aurkeztutako jarduketa- eta prestakuntza-planaren simulazioan oinarritu ahalko da.

Enpresa kontratistak egingo du bigarren urteko indarraldiari dagokion jarduketa- eta prestakuntza-plana, bigarren urtea hasi baino bi hilabete lehenago, **Kultur Ekintza** departamentuaren zuzendaritzak ezarritako arauen eta aurrekontuaren arabera, eta horretan oinarrituta diseinatu eta gauzatu beharko ditu «Musikagela» zerbitzuarekin lotutako jarduerak.

- Plan dinamizatzaileak **«Musikagela» zerbitzuarekin lotutako musikariak agerian jartzeari emango dio lehentasuna**, sektorean ezagunak izan daitezen, eta emanaldiak antolatuko ditu, hala gune publikoetan nola pribatuetan.

- Adin-tarteen arabera bereizitako jarduerak nabarmenduko dira, bereziki, nerabe eta gazteentzat direnak **(12-30 urte artekoentzat)** eta eduki teoriko-praktikoa dutenak.

- Harremanak egiteko moduak aztertuko ditu, tokiko jardunbide eta adierazpen musikaletako mugimendu eta joera berriekin.

Kontratua luzatuko balitz, enpresa kontratistak plan berri bat prestatu beharko du luzapen bakoitzerako, luzapen bakoitza baino bi hilabete lehenago.

Emanaldien eta prestakuntzaren planak DONOSTIA KULTURA erakundearen oniritzia izan beharko du.

Enpresa kontratistak gauzatu beharreko lanen **gutxieneko** bat jasoko da planean, eta kontratistaren ardura izango da aurreikusitako jarduerak erabat kudeatzea; halaber, bere kargura izango dira jarduera horien gastu guztiak (DONOSTIA KULTURA erakundeak berariaz bere kargu hartuko dituela jarraian adieraziko diren gastuak izan ezik):

a) Urtero **MUSIKAGELA WEEKEND** jaialdia neguan eta **MUSIKAGELA FEST** jaialdia udan diseinatu, antolatu eta gauzatzea, «Musikagela» zerbitzua eta tokiko musika taldeak ezagutzera emateko. Bi kasuetan, kontzertuak eta «Musikagela» zerbitzuari buruzko informazio ekintzak dituen programazio bat egingo da egunean zehar.

   Kontratistak bere kargura atxikiko ditu bi ekitaldietan egingo diren ekintzak diseinatu, kudeatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren **ekoizpeneko langileak.** Bestalde, DONOSTIA KULTURAk bere gain hartuko ditu bi ekitaldiak egiteko gainerako kostuak, enpresa kontratistak proposatutako aurrekontua onartu ondoren.

IFK-CIF Q2000541I

Aipatutako jaialdien diseinuak eta antolamenduak DONOSTIA KULTURA erakundearen oniritzia izan beharko du.

b) **Tokiko taldeak aukeratzeko** entzunaldiak antolatu eta kudeatzea, Dkluba zirkuituko kontzertu eta jaialdietan parte hartzeko.

Kontratistaren kontura izango dira Agiri honen esparruan **tokiko interpretatzaileek** gune publiko eta pribatuetan egindako entzunaldietan «Musikagela» zerbitzua erabiliz egindako **ekoizpen lanak eta erabilitako material teknikoak**. Zenbatesten da, orientazio modura baina asmo loteslerik gabe, hogei eta berrogei entzunaldi inguru egingo direla.

Artistak kontratatzeko kostuak DONOSTIA KULTURA erakundearen kontura izango dira, enpresa kontratistak proposatutako aurrekontua onartu ondoren.

c) «Musikagela» zerbitzuaren eta tokiko interpretatzaileen jarduerak sustatzeko **bideo espezifikoen zuzendaritza kudeatu eta ekoiztea**. Bi bideo mota bereiz daitezke:

- <u>«Musikagela» zerbitzuko bakarlariak eta taldeak sustatzeko ikus-entzunezkoak</u>.

  2 eta 5 minutu artean izango dituzten bideoen gidoiak egitea, ekoiztea, grabatzea, zuzentzea eta editatzea, zeinetan abesti bat interpretatuko den, sustapena egiteko xedez.

  Ohiko bideo-klip formatua izan dezake edo antzeko beste proposamenen bat izan daiteke.

  Aurreprodukzioko eta prestaketako nolabaiteko maila eskatzen du, *in situ* grabatuko baita.

  Grabaketak lanaldi bakarrean egingo dira.

  Zenbatesten da, orientazio modura baina asmo loteslerik gabe, horrelako 3 bideo egingo direla.

- <u>«Musikagela» zerbitzuko jarduerak sustatzeko ikus-entzunezkoak</u>.

  01:30 eta 2 minutu artean izango dituzten bideoen gidoiak egitea, ekoiztea, grabatzea, zuzentzea eta editatzea, «Musikagela» zerbitzuan antolatutako jarduerak aurrez edo gero sustatzeko.

  Baliabideekin egindako bideoak izan daitezke, *in situ* grabatu edo inora joan behar izanik gabe, edo jarduera egiteko irudien grabaketa izan daiteke.

  Grabaketak lanaldi bakarrean egingo dira.

IFK-CIF Q2000541I

Zenbatesten da, orientazio modura baina asmo loteslerik gabe, horrelako 6 bideo egingo direla.

d) **Tokiko bakarlari eta musika taldeen datu base bat sortu eta kudeatzea**: martxan jartzea, altak eta bajak egitea eta txostenak prestatzea, parametro soziodemografikoen arabera. Datu basea gordailu partekatu batean gorde eta eguneratuko da, eta Egia eta Intxaurrondoko kultur etxeek eta Kultura Ekintzako Arloak izango dute horretarako sarbidea. DONOSTIA KULTURA izango da datu basearen jabe.

Enpresa esleipendunak gauzatu behar dituen funtzioen artean, **Dkluba zirkuituaren Balorazio Batzordearen musika materialaren arloan aholkatu** behar du; horretarako, besteak beste, bileretara joan behar du hilean behin, eta bilerak prestatzeko aurretiko nahitaezko zereginak egin behar ditu.

e) **Ikastaroak.** Enpresa kontratistak askotariko prestakuntza ikastaroak antolatuko ditu «Musikagela» zerbitzuaren inguruan eta musika anplifikatuarekin lotuta.

Prestakuntza espezializatua emango da (Egiako kultur etxean).

Zenbatesten da zenbait ikastaro egingo direla urtean zehar, zeinak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko diren. Espezializazioko ikastaroei dagokienez, zenbatesten da, orientazio modura baina asmo loteslerik gabe, lau eta bost ikastaro artean egingo direla.

Espezializazioko ikastaroek gutxieneko inskripzio kopuru bat izango dute: 10 gaztelaniako ikastaroetan eta 8 euskarakoetan. Ez bada gutxieneko inskripzio kopurua lortzen, ikastaroa bertan behera geratuko da.

Kontratistaren kontura izango dira ikastaroaren kudeaketa, antolamendu kostuak eta irakasle eta hizlarien **kontratazioa eta ordainsariak**.

Ikastaroetara bertaratutakoek DONOSTIA KULTURA erakundeko kontu korronte batean sartu beharko dute DONOSTIA KULTURAk ezarritako prezioa.

C) Grabatzeko eta zuzenean jotzeko ekipamendu eramangarrien erabilera lagatzeko zerbitzua (Egiako kultur etxean soilik):

DONOSTIA KULTURAK «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileen eskura ekipamendu eramangarriak jarriko ditu grabatzeko eta zuzenean jotzeko.

Enpresa kontratistak grabatzeko eta zuzenean jotzeko ekipamenduen erabileraren eta biltegiratzearen lagapena kudeatuko du, Egiako kultur etxearen zuzendaritzak emandako arauen eta erregelamenduaren arabera, zeinak Agiri honekin batera doazen **I. Eranskin** moduan. Era berean, erabiltzaileei aholkularitza eta prestakuntza emango die ekipamenduen eta instalazioen erabilera egokiari buruz.

IFK-CIF Q2000541I

Erabiltzaileek aurrez ordaindu beharko diote DONOSTIA KULTURAri zerbitzuaren prezioa eta egon daitezkeen kalte eta galerengatik utzi beharreko nahitaezko bermea. DONOSTIA KULTURAk ezarriko ditu bai prezioa bai bermea.

D) Biltegia:

DONOSTIA KULTURA erakundeak tokia dauka bi zentroetan, «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileek beren musika-tresnak bertan gorde ditzaten.

Enpresa kontratistak kudeatuko du «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileek nola erabiltzen dituzten biltegiok.

Biltegiok erabiltzeko, «Musikagela» zerbitzuko erabiltzaileek aurrez ordaindu beharko dute DONOSTIA KULTURA erakundeko kontu korronte batean DONOSTIA KULTURAk ezarritako prezioa. Enpresa kontratistaren erantzukizuna izango da «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileen ordainketa kudeatzea.

Erabiltzaileak astelehenetik igandera sartu ahal izango dira biltegira (sarreratik), edozein ordutan, zamalanak egitera.

«Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileek dagokion kontratua sinatu beharko dute DONOSTIA KULTURA erakundearekin eta, horren bidez, DONOSTIA KULTURA erakundea erantzukizun orotatik salbuetsita utziko dute, haren instalazioetan gordetako musika tresnek izan ditzaketen kalte, galera eta bestelako gorabeherei dagokienez.

DONOSTIA KULTURAk ez du bere gain hartuko biltegiratutako materialak izan ditzakeen kalteen (lapurretak, ebasketak, hausturak, etab.) ondoriozko inolako erantzukizunik.

IFK-CIF Q2000541I

3. ARETOAK ETA ZERBITZUAK: PREZIOEN ETA DIRU-SARREREN KUDEAKETA

DONOSTIA KULTURA erakundeak ezarriko du «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak zerbitzu/jarduera bakoitzeko ordaindu beharreko prezioa (eta bermearen zenbatekoa, hala dagokionean).

«Musikagela» zerbitzuaren ondoriozko diru-sarrera guztiak DONOSTIA KULTURA erakundearentzat izango dira: hau da, DONOSTIA KULTURAri dagokio:

- «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindutako prezio osoa
    - entsegu aretoak aldi batez erabiltzeagatik,
    - biltegia erabiltzeagatik,
    - ekipamenduak grabatzeko eta zuzenean jotzeko erabiltzeagatik,

- enpresa kontratistak egindako dinamizazio jardueretako eta ikastaroetako parte hartzaileek ordaindutako prezioa, eta

- estudioan grabatzeko eta/edo zuzenean jotzeko materialaren erabilera lagatzeko kasuan, egon daitezkeen kalte eta galerengatik DONOSTIA KULTURAri utzitako bermeak, erakundeak zehaztutako zenbatekoaz.

Diru-sarrera eta berme guztiak DONOSTIA KULTURA erakundearen titulartasuneko kontu korronte batean sartu behar dira.

Enpresa kontratistaren erantzukizuna izango da «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindutako prezioak eta utzitako bermeen ordainketa kudeatzea.

Bestalde, DONOSTIA KULTURA erakundearen kontura izango dira gune eta aretoen mantentze-lanak (garbiketa, kontsumoak, etab), ekipamenduen mantentze-lanak eta konponketak eta Agiri honetan jasota ez dauden jarduerak diseinatzeko, antolatzeko eta gauzatzeko sortutako gastuak.

4. ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIA

IFK-CIF Q2000541I

«Musikagela» zerbitzua urte osoan zehar ematen da, enpresa kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak gauzatu behar dituen egutegia eta ordutegia gorabehera. Indarreko egutegi eta ordutegiak aldatu daitezke, DONOSTIA KULTURA erakundearen zerbitzuetako programazioaren eta egutegien premien arabera:

A. Egutegia:

DONOSTIA KULTURA erakundeak kontratuaren xede diren prestazioen egutegia ezarriko du, zeina kontratistari urte bakoitzeko iraileko lehen 3 asteetan jakinaraziko zaion. Egutegi hori «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaile taldeen premietara egokituko da.

Orientazio gisa baina asmo loteslerik gabe, 2025ean, kontratuaren xede diren prestazioak urte osoan zehar eman ziren, aurrez aurreko arreta eta mendeko zerbitzuak izan ezik, zeinak itxita egon ziren larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta jaiegunetan.

Abuztuan, zerbitzu horiek aurretiko eskaripean eta erabiltzaileekin adostuta eman ziren.

B. Ordutegiak:

Enpresak kontratuaren xede diren prestazioak eman behar dituen **ordutegia** gorabehera, DONOSTIA KULTURA erakundeak «Musikagela» zerbitzuaren aurrez aurreko arretaren ordutegia ezarriko du, enpresa kontratistak zerbitzu hori emateko.

Ordutegi hori «Musikagela» zerbitzuaren erabiltzaile taldeen premietara egokituko da. DONOSTIA KULTURA erakundeak kontratistari kontratistari urte bakoitzeko iraileko lehen 3 asteetan jakinaraziko dio «Musikagela» zerbitzuaren aurrez aurreko

arretaren ordutegia. Zenbatespen eta orientazio gisa eta asmo loteslerik gabe, aurrez aurreko ordutegi hori urtean 908 ordukoa izango da, kultur etxeetako bakoitzean.

Entsegu aretoen aldi baterako erabilera lagatzeko zerbitzuaren ordutegiak premien eta zentroko gainerako jardueren programazioarekiko bateragarritasunaren arabera aldatu ahalko dira. Orientazio gisa eta asmo loteslerik gabe, 2020an, lagatako aretoen erabilera ordutegiak hauek izan ziren:

Egiako kultur etxea

Egoiliarren taldeek eta txandakako taldeek aurrez aurreko arreta behar dute aretoetara sartzeko. Ez dute entsegu aretoetarako bereizitako sarbiderik.

- Astelehenetan: 10:00-13:30 (*)
- Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:00etara
- Larunbatetan: 10:30etik 13:30era

**(Arratsaldeetan ez. Bateragarriak ez diren ikastaroak daude)*

Horri buruz, esan behar da neguko ordutegian Egiako Kultur Etxea «Musikagela» zerbitzuko aretoak erabiltzeko oinarrizko arretaren kargu egin zela partzialki (irekitzea, giltzak ematea, kontrola, etab.), enpresa kontratistaren aurrez aurreko arretaren ordutegitik kanpo.

Intxaurrondoko kultur etxea

Intxaurrondoko egoiliarren taldeek bereizitako sarbide bat dute 24 ordu erabilgarri, baina ezin dute entseatu goizeko 01:00etatik 9:30era, DONOSTIA KULTURAk hala erabaki duelako.

Txandakako taldeen entseguetarako ordutegiak

- Astelehenetik ostiralera: 18:00etatik 21:00etara.
- Larunbatetan, 10:30etik 13:30era.

5. KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA. ZERBITZUAREN SUSTAPENA

- **Komunikazioaren arloari** dagokionez, «Musikagela» zerbitzuaren eta DONOSTIA KULTURA erakundearen irudia eta marka (logotipoa) soilik ikusiko dira eremu horretan eta, zehazki, irudi korporatiboari eta zerbitzuaren identitate bisualari dagokionez.

  Horretarako, kontuan hartuko dira DONOSTIA KULTURA erakundearen irudi korporatiboaren eskuliburuan jasotako jarraibideak eta gomendioak. «Musikagela»

IFK-CIF Q2000541I

DONOSTIA KULTURA erakundearen marka erregistratu bat da eta hala dago jasota Industria, Energia eta Turismo Ministerioan, 2015eko abenduaren 7tik.

Enpresa kontratistaren irudia edo marka ez da agerian egongo «Musikagela» zerbitzuaren komunikazio guneetan.

- Enpresa kontratistak, «Musikagela» zerbitzuaren sustapenari dagokionez, betebehar hauek izango ditu:

    1. Herritarren **informazio eskaerei erantzutea**, «Musikagela» zerbitzuaren ezaugarriei, araudiari eta funtzionamenduari buruzko azalpenak ematea eta «Musikagela» zerbitzuan egiten diren jarduerak jakinaraztea eta hedatzea.
    2. «Musikagela» zerbitzua sustatzeko, bertako jardueretan sortzen den materialaren **ikus-entzunezko dokumentazioa egitea eta material hori hedatzea**.
    3. «Musikagela» zerbitzuko **sare sozialak** eta **beste komunikazio euskarri batzuk** kudeatzea, DONOSTIA KULTURA erakundearen jarraibideak betez.
    4. Auzoek egindako **lankidetza eskariak** ahal den heinean kontuan hartzea eta eskarioi erantzutea.

IFK-CIF Q2000541I

6. KONTRATUA EGIKARITZEAN ATXIKI BEHARREKO GIZA BALIABIDEAK

Kontratistak kontratua gauzatzeko bere eskaintzan jasotako giza baliabideak erabili beharko ditu, hau da, atxikitzeko konpromisoa hartu duen pertsonak atxiki beharko ditu gutxienez, Karatularen 10. puntuari jarraikiz, eta Karatularen 10. puntu horretan gutxieneko horrez gain atxikiko zituela adierazi dituenak, baita ere.

Enpresa esleipendunaren ardura izango da kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonek prestaziorako prestakuntza egokia jasotzea, arretaz eta eraginkortasunez.

Hona hemen kontratistak Karatularen 10. puntuari jarraikiz kontratua gauzatzeari atxiki behar dion koordinatzailearen funtzioak:

- Kontratistaren ordezkari izatea DONOSTIA KULTURA erakundearen aurrean.
- Kontratistaren solaskide gisa jardutea DONOSTIA KULTURAren aurrean, kontratistaren eta kontratua egikaritzeari atxikitako langileen arteko komunikazioa bideratuz, bai eta DONOSTIA KULTURAren artekoa ere, kontratua gauzatzetik eratorritako gai guztiei dagokienez.
- Kontratatutako zerbitzuen gauzatzea koordinatzea eta DONOSTIA KULTURAko kontratuaren arduradunak emandako aginduak praktikan jartzea, dagozkion aginduak, lana egiteko irizpideak eta lana banatzeko jarraibideak emanez.
- Kontratua betearazteari atxikitako langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horien asistentzia kontrolatzea.
- DONOSTIA KULTURAri jakinaraztea kontratua betearazteari atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak.

- DONOSTIA KULTURArekin lankidetzan aritzea, kontratua indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
- DONOSTIA KULTURArekin harremanetan jartzea, beharrezkoa den guztietan.
- DONOSTIA KULTURAko arduradunak deitutako bileretara joatea.
- DONOSTIA KULTURAk eskatzen dion antzeko beste edozein lan egitea.

Koordinatzaile horrek soilik izango ditu zuzeneko harremanak erakunde kontratatzaileak izendatutako kontratu-arduradunarekin.

Edozein arrazoigatik pertsona berri bat izendatu behar bada koordinazio eginkizunetarako, DONOSTIA KULTURA erakundearen oniritzia beharko da.

7. TXOSTENAK ETA DATU BASEAK

Enpresa kontratistaren betebeharra izango da:

1. **Hiru hilean behingo ebaluazioak egitea eta estatistika bat sortzea**, DONOSTIA KULTURA erakundeak aurrez ezarritako parametroei jarraikiz.

2. Urte bakoitzeko uztailean, **«Musikagela» zerbitzuaren ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoko dituen txosten bat egitea** eta, abenduaren erdialdean, urteko jarduera islatuko duen memoria bat entregatzea.

   Txostenotan, besteak beste, generoaren aldagaia (gizona/emakumea) hartuko da kontuan, eta informazioa aldagai horren arabera banakatuko da.

3. **Tokiko bakarlari eta musika taldeen datu base bat sortu eta kudeatzea**: martxan jartzea, altak eta bajak egitea eta txostenak prestatzea, parametro soziodemografikoen arabera. Datu basea gordailu partekatu batean gorde eta eguneratuko da, eta Egia eta Intxaurrondoko kultur etxeek eta Kultura Ekintzako Arloak izango dute horretarako sarbidea. DONOSTIA KULTURA izango da datu basearen jabe.

Donostian, sinadura elektronikoan adierazitako datan.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2026.02.26 12:18:24 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari kudeatzailea

IFK-CIF Q2000541I